



HODEIEKIN DANTZAN

LIBURUAREN FITXA

STARKOFF, Vanina. *Hodeiekin dantzun*. Pamiela-Kalandraka, 2010

Aurkezpena

Album ilustratu honetan haur baten ametsak beteko dira, bere inguruan elkartzen diren pertsonen ametsak beharrak eta nahiak betetzen direnekin batera. Baina bere ametsa lortzen duenean, konturatuko da hodeietan baino nahiago duela bere auzokide alaiekin batera bizi izatea. Ilustrazio koloretsuek beteko dituzte orriz orri neskaren ametsak.

Kontakteta

Afrikako herri txiki batean kokatu dezakegu ipuin hau. Herri txiki horretara pixkana-pixkana jende asko joango da bizi izatera, beren lurraldeetan bizibiderik aurkitzen ez dutelako-edo. Jende guzti honek beren desioak eta esperantzak ekartzen ditu herrira, etorkizun hobeko baten alde.

Herrian bizi den neska batek hodeiekin dantza aritu nahi du, eta gauetan amets egiten du. Haren ametsak etorri berrien ametsetara metatuko dira bere nahia bete arte. Hodeietara iritsi da azkenean, eta han dantzan ari dela konturatuko da, bere ametsa ez dela ezer beste guztien ametsik gabe...

Proposamenak luzatzen

- Aldez aurreko kontaktaren ondoren, orriz orri aztertu ipuina.
- Herria nola handitzen den, neskaren ametsa nola betetzen den...
- Herriaren ezaugarriak, merkatuak, kaleak, jendearen zereginak...
- Koloreak eta formak

Proposamenak zehazten

- Zure herrian ba al dago merkaturik?
- Merkaturako bisitaldi bat antolatu
- Horietan ikusi dutena eta ipuinean agertzen dena konparatu
- Merkatu bat antolatu, eta beste gela batzuetako haurrak gonbidatu